



Jaiotzen HASI dira

Han EMPEZADO a nacer

HABIA-KUTXAK CAJAS NIDO

PRIMAVERA 2025eko UDABERRIA

Astigarraga - Donostia - Errenteria / Orereta - Irun
(Gipuzkoa)



Jaiotzen hasi dira

Jaiotzak hasi dira, Parkea Bizirik-en habia-kutxetan, bederen. Hegazti intsektujaleak martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran goroldioa eta landare-artilea eramaten hasi ziren; harrapari gautarrak aste batzuk lehenago hasi ziren.

Habia egin ostean, goizero kaskabeltzek zein amilotzek, arrautza txuri bat gorri ilunez pikardatua erruten dute. Ondoren, eta harraparien begietara ezkutatzeko asmoz, arrautzak landare-artilez estaltzen dituzte. Goringoa oskolari itsats ez dakion, biratu eta irauli ere egiten dituzte. Horrela, enbrioi-garapen egokia errazten dute eta malformazioak izateko arriskua murrizten dute. Azken arrautza errun ondoren, normalean 5 eta 7 artean, inkubazioari hasiera ematen diote. Baldintzen arabera, 13 eta 16 egun bitarteko iraupena izaten du horrek. Salbuespenak salbuespen, eklosioak eta txiten hazkundera sinkronikoak edo aldi berekoak izaten dira. Jaio eta 20 egunera habia-kutxa utzi eta mundu zabalera irteten dira. Txitak gosez hil ez daitezen, gurasoek intsektuak bilatzen eta harrapatzen lan handia egiten dute. Etengabeko jarduera horrek intsektu- eta araknido-espezie batzuei, zuzeneko presioa eragiten die eta baita beste ornogabe batzuei ere.

Bestalde, urubiek -gure inguruan hontz espezie habiagilerik arruntena, eta baita Parkea Bizirik-en kutxen erabiltzaile

Han comenzado a nacer

Han comenzado los nacimientos, al menos en las cajas nido de Parkea Bizirik. Las aves insectívoras, comenzaron a llevar musgo y lana vegetal a últimos de marzo y primeros de abril, aunque las rapaces nocturnas empezaron con semanas de antelación.

Carboneros y herrerillos, tras la construcción del nido, ponen cada mañana un huevo blanco moteado de manchas granates. Después, cubren los huevos con lana vegetal para ocultarlos a los ojos de los depredadores. También los giran y voltean para evitar que la yema se adhiriera a la cáscara. Así favorecen el correcto desarrollo embrionario y disminuyen el riesgo de malformaciones. Tras la puesta del último huevo, por lo general entre 5 y 7, dan comienzo a la incubación que, en función de las condiciones, dura entre 13 y 16 días. Salvo excepciones, las eclosiones y el crecimiento de los pollos, acontecen de forma sincrónica o simultánea. A los 20 días de vida abandonan la caja nido y se aventuran al mundo exterior. El trabajo y dedicación de los padres buscando y cazando insectos para que las crías no fallezcan de hambre es intenso. Esta frenética actividad ejerce una presión directa sobre algunas especies de insectos y arácnidos, así como de otros invertebrados.

Por su parte, los cárabos, -la especie de búho más común en nuestro entorno y que también crían en las cajas de Parkea



azti intsektujaleen kontrako estrategia jarraitzen dute, inkubazioa lehenengo arrautza erruten dutenetik hasten baitute. Inkubazio-mota horri inkubazio asinkroniko deritzo, eta, beraz, txitak modu mailakatuan jaiotzen dira. Hori dela eta, haien artean tamainari eta adinari dagokienez aldeak egon ohi dira. Elikagai eskasia badago, lehenago jaio diren txitek txikiek baino aukera gehiago aurrera ateratzeko dituzte; izan ere, kutxan harrapakinik ez badago, kanibalismoari ekin baitiezaioke, beti ere txitarik txikienek kaltetan eta handienek mesedetan.

Ez da ezohikoa habia-kutxetan ikuskapenak egin bitartean, urubien txiten aldamenen landa-saguen eta satorren gorpuekin topatzea, ez eta, neurri txikiagoan bada ere, zatitutako arratoiren batekin ere.

Hegaztien txitaldia bukatzearekin batera, eta landaredi motaren arabera, habia-kutxak bizileku, biltegi edo erditze berri bilakatzeko, muxar grisa ate joka aritu ohi da. Hortxe, ekainetik urrira ematen du. Egia esan, bai kumatzeko, bai atsedean hartzeko, bai lo egiteko edota eguraldi txarretik babesteko, gure inguruko basa-faunak Parke Bizirik-en 33 habia-kutxak urte osoan erabiltzen ditu.

**1990 – 2025. 35 urte habia-kutxak mantentzen eta datuak biltzen.*

Egian, 2025eko maiatzaren 20an

Bizirik-, siguen una estrategia opuesta a la de las aves insectívoras, ya que comienzan la incubación desde la puesta del primer huevo. A este tipo de incubación, se le denomina *incubación asincrónica*, por lo que los pollos nacen de forma escalonada. Por eso, suele haber diferencias de tamaño y edad entre ellos. Si hay escasez de alimentos, las crías que han nacido antes tienen más posibilidades de salir adelante que las más pequeñas y, si no hay presas en la caja, pueden practicar el canibalismo con sus hermanos y hermanas más pequeños, facilitando la vida de los más mayores y aventajados.

No es infrecuente encontrar durante las inspecciones en las cajas nido y junto a los pollos de los cárabos, cadáveres de ratones de campo y de topes y, en menor medida, de alguna rata descuartizada.

Al finalizar la temporada de cría de las aves y, en función del tipo de vegetación, suele ser habitual que el lirón gris llame a la puerta para convertir las cajas nido en su nueva morada, almacén o paridera. Allí suele estar de junio a octubre. Sea para criar, descansar, dormir o protegerse de las inclemencias meteorológicas, lo cierto es que las 33 cajas nido de Parkea Bizirik son utilizadas durante todo el año por la fauna silvestre de nuestro entorno.

**1990 – 2025. 35 años manteniendo y recopilando datos en cajas nido.*

En Egia, a 20 de mayo de 2025



Aiako Harria

Irun



Amilotx urdinak / Herrerillos comunes

Donostia



Parkea bizirik
kukulunbera

Urubiaren txita / La cría del cárabo

Errenteria / Orereta

Parkea Bizirik ekimeneko boluntarioari lagundu nahi diozu?

Bideo laburrak editatzen eta zabaltzen lagun diezagukezu, Ingurumenari buruzko komunikatuak dotore itzultzen edota komunikatuak Interneteko beste helbide batzuetara birbidaltzen.

Idatzi helbide honetara: info@parkeabizirik.org

¿Quieres ayudar al voluntariado de Parkea Bizirik?

Puedes ayudarnos editando videos breves para su posterior divulgación, traduciendo de forma elegante comunicados sobre Medio Ambiente y/o reenviando los comunicados a otras direcciones de internet.

Escríbenos a info@parkeabizirik.org



GOZATU BIDEO – DISFRUTA EL VÍDEO

Jaiotzen hasi dira - Han comenzado a nacer. 2025eko udaberria -Primavera 2025 (PARKEA BIZIRIK)

<https://youtu.be/P7fwi0sj5-w>

Parkea bizirik
k u k u l u n b e r a